

EGUNGO GIZARTE INDUSTRIALIZATUETAN LANAK BALORE NAGUSIA IZATEN JARRAITZEN AL DU?

Nuria Agirre Unzueta
Soziologia Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1. ATALA: "LANA"ren GAUR EGUNGO ZENTZUAREN ASMAKUNTZA.... 119; 1.1. SARRE-
RA.... 119; 1.2. LANAREN BI MUNDU DESBERDIN.... 121; 1.3. ALOKAIUPEKO LAN-EREDUA-
REN SORRERA.... 124; 1.4. LANAREN GARAPENAREN JARRAIBIDEAK.... 129; 1.5. ZERGAITIK
EMATEN DA SOLDATAPEKOPEKO LANARENGANAKO -LAN INDARRA DIRUAGATIK TRU-
KATZEA- GARAPEN OROKOR HAU?... 130; 2. ATALA: LANAREN INGURUKO JOERA ETA
ALDAKETAK.... 131; 2.1. IHARDUERA LABORALAREN DEFINIZIO KONPLEXUAGO BATEN
BEHARRA..... 131; 2.2. GIZARTE ASALARIZATUAREN KRISIALDIA?... 136; 2.3. LAN MERKA-
TUAN EMAN DIREN ALDAKETAK.... 140; 3. BIBLIOGRAFÍA.... 144.

1. Atala: "Lana"ren gaur egungo zentzuaren asmakuntza

1.1. Sarrera

Modernitatearen asmakuntza bat besterik ez da guk "lana" bezala ezagutzen duguna. Lan hau ezagutzeko, burutzeko eta bakoitzaren bizitzaren muinean kokatzeko erabiltzen dugun modua asmatua izan zen; eta gero, industrialismoaren bidez orokortu egin zen.

"Lana"ren gaur egungo zentzua ez da nahasten norberaren mantenu eta ugalketarako ezinbestekoak diren, eta egunetik egunera errepikatzen diren eginkizunekin; ezta ere, norbanako batek, bere edo beretarren onurarako, burutzen duen

zereginarekin, nahiz eta hau obligaziozkoa izan; ezta ere, gure esfortzua eta denbora kontutan eduki gabe, “motu propio” burutzen dugunarekin (soilik guk garrantzitsutzat jotzen dugun xede batek bultzaturik eta gure ordeiz inork burutu ezin izango lukeena).

Lanari buruz hitzegiterakoan aktibitate horiei buruz arituko bagina –“etxe-ko-lana”, “lan artistikoa”, “autoprodukzio-lana”– ez genuke hitzegingo gizarreak bere izatearen zimenduetan finkaturiko lanak duen zentzuan, baizik eta oso zentzu desberdin batean¹.

Gure gizarrean “lana”ren adiera zabalduena soldatapeko lan aktibitate motarekin erlazionatzen duena litzateke, enplegu bezala ezagutzen duguna. Lana “osotasuna” bere parteetako batekin nahasten da, soldatapeko lana edo enpleguarekin.

Gurea bezalako gizarte batetan, merkatuak erregulatzen ditu nagusiki produkzioa eta banakuntza; eta ondasun eta zerbitzu gehienekin gertatzen denaren antzera, lana bera ere –hobe esanda lan-indarra– ekoizpen prozesuan integratuko da beste edozein merkantzia bat bezala: langileak lan-indar hori salduko dio enpresa bati, honek, hitzarturiko denboran zehar erabili dezan; trukean, langileak soldata bat jasoko du.

Engungo gizarrean lana bezala ezagutzen dugunaren funtsezko ezaugarria –“daukaguna”, “bilatzen” duguna, “eskaintzen” duguna– *esfera publikoan burututako aktibitate bat* izatea litzateke, besteek *onuragarritzat* jotzen dutena eta beraz, onuragarritzat jotzen duten horiek ordaindua. Ordainduriko lanari (eta batez ere soldatapeko lanari) esker esfera publikoaren partaide bihurtzen gara, izate eta nortasun soziala eskutzaren ditugu (hau da, lanbide bat); harreman eta trukatzeko sare batean txertaturik aurkitzen gara, non geure buruak besteekin neurtzen baiditugu, eta non beste horien gain eskubideak eskaintzen zaizkigun, guk horienganako ditugun betebeharren truke².

Sozialki ordaindu eta determinaturiko lana gizarteratzearen faktore garrantzitsuena –lan bila dabilzatenentzat, lanerako prestatzen daudenentzat, eta ez daukatenentzat ere– izatearen ondorioz, “langileen gizarte” bat bezala ulertzen da gizarte industriala, eta horregatik, aurreko gizarte guztietatik bereizten da.

1. GORZ ANDRE: *Metamorfosis del Trabajo. Sistema*. Madrid 1995. p. 26.

2. *Ibidem* p. 26.

Gizarte modernoan zehar eta oraindik, langileentzat “hiritartasun” iturri den lan hau, ezin da gizakiaren irautea ziurtatzeko premiaren ondorio den “lan”-era soilik murriztu. Irauteko beharrezkoa den lan hau inoiz ezin izan zen integrazio sozialerako faktore bat bilakatu. Egia esanda kanporatze printzipio bat zen; gizarte aurre-moderno guztietan azpi-mailakoak kontsideratzen zituzten lan hau burutzen zutenak; erreinu naturaleko kide ziren eta ez giza-erreinukoak. Beharren eraginpean zeuden, izpiritua goratzeko gauza ez ziren, eta hiriarren arazoetaz arduratzeko beharrezkoa den desinteresa ere falta zitzaien.

Populazio aktiboaren gehiengoak soldatapeko enplegu bat badu gaur egun; hala ere, ia beti beste era batetara izan da. Nahiz eta gizarte industrialean lana mundu ekonomikoarekin erlazionatu izan den, historian zehar ez dira beti bat etorri. Beste gauza bat bezala ulertzen zen lana garai batean. Egungo lanaren antolaketa, eta honekiko gure jarrera, orain dela gutxikoak dira eta ez daukate zerikusirik gaur-izatearekin. Lanaren “asmakuntza” berria industrializazio prozesutik dator.

Hala ere, azken urteotan lanaren kontzeptuan, errepresentazioetan zenbait aldaketa ematen ari dira eta ondorioz, honako galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: lanak mantentzen al du gaurkotasunik egungo gizarte industrializatueta balore nagusi bezala? Betebehar moral gisa indargabetu egiten da lana; beste bide batzu jarraituz hobetu daiteke mundua. Badirudi joera berriek soldatapeko lan-ereduaren monopolioa –baina ez bere garrantzia– zailtzen jartzen dutela. Eredu hegemoniko gisa bere jarraitasuna mehatxaturik ez dirudien arren, 80. hamarkadatik hona jasaten ari den zailtasunen aurrean (langabezia masiboa, desoreka sektorialak, kontratuen ezegonkortasuna, informalizazioa) merkatal trukearen menpe edo aktibitate bat lana bezala izendatzeko erabiltzen diren irizpideen aplikazioen menpe ez dauden lan alor posibletan pentsatzen hasi beharko da.

Zein toki dauka lanak gaur egun?

Zein aldaketa jasaten ari da soldatapeko lan-eredua?

1.2. Lanaren bi mundu desberdin.

Lanak ez du beti izan lanaren-gizarteetan hartu duen zentzua. Gaur egun lana dena izatera iritsi arte, gizateria langilea bide luzean zehar ibili izan da. Lanaren funtzio eta ezaugarrietan aldaketa bortitzak eman dira, eta pertsonen bizitzetan okupatzen duen lekua ere aldatu egin da: iraupenerako produkzio batetik gizarte industrialetan ematen den soldatapeko lan motara iritsi arte.

Aintzina, oinarritzko premiak asetzeko burutzen zen morroi-okupazio bat besterik ez zen lana eta lan hau burutzen zutenak hiritartasunetik, hau da, arazo publikoetan partehartzetik, kanpo uzten zituzten.

Lan egiteak beharren menpe egotea suposatzen zuenez, lana iraingarria zen hiritarrarentzat. Eta, esklabuen antzera, askatasuna baino bizia nahiago zutenek soilik onar zezaketen menpekotasun hori, eta hortaz, bere morroi-izpirituaren froga bizia erakusten zuten.

Askatasuna, edo gizatiarraren erreinua, “beharraren erreinutik harantz” soilik hasten dela dioen ideia, konstante bat izan da Platonen garaitik hona.

Familiaren esfera pribatu, ekonomikotik kanpo hasten zen soilik askatasuna. Polisarena, esfera publikoa zen askatasunaren esfera. Esfera pribatua, familiarena, lanaren eta premia ekonomikoaren esferarekin nahasten zen bitartean, esfera publikoa, politikoa, askatasunarena zen. Horrela, hiritarren bizitza politikorako premien hornidura ahalbidetzen zuelako justifikatzen zen esklabuen existentzia.

Testuinguru horretan “langile”-aren ideia bera ere pentsaezina gertatzen zen: morroitzara eta etxekotasunean giltzapetzera kondenatua; lanak “nortasun sozial” bat eman orde, izaera pribatu bat definitzen zuen eta eremu publikotik kanpo uzten zituen bere menpe zituen guztiak.

Iraupenerako beharrezko lana inoiz ezin izan zen bilakatu integrazio sozialerako faktore bat. Gaur egun integrazio soziala deritzoguna ez zen lanaren bitartez lortzen, baizik eta bizi osoa kontenplazioan emanez. Lana gehienbat bazterte faktore bat zen.

Behar sorta mugatu eta ez oso aldakorra asetzearen produzitzen da iraupen ekonomian. Bere xedeekiko disoziaezina da lana, eta ondorioz, bizitza osoarekiko ere. Berehalako helburu bat lortu nahi du eta ezin da lana bera xede bat bezala kontsideratu. Lanaren zatiketa simple baten esparruan (emakumezkoen eta gizonezkoen artean eginkizunen banaketara mugatzen dena), langileak berak erabakiko du *zer* produzitu, *nola* produzitu, *noiz* eta *zein erritmotan*. Hau da, gizabanakoez eta taldeek, naturaren eskuzabaltasun mailaren arabera, eskura duten teknologiaren arabera eta taldearen konposaketa demografikoaren arabera, beren beharrak esfortzu maila aldakorrez asetzen dituzte. Edozein kasutan, lan denbora eta lan erritmoa gutxitan sakrifikatzen dira oinarritzkoak ez diren beharren asetzearen truke, azken hauek existitzen ez direlako, edo prezio horren truke asetzeari uko egin zaiolako. Helburu espeziifikoak eta mugatuak ditu iraupen ekonomia honek.

Edo dirudi homo economicus-aren printzipio unibertsalak, beren buruari helburu mugatuak esleitzen dizkieten gizarteetara ondo egokitzen direnik.

Gizarte industrializatuan egoera oso desberdina da. Gehiengoak ez dauka bere lanaren produktua zein izango den erabakitzeke ahalmenik. Orokorrean soldatapekoek ez dute egiten, eta norbere kontura lan egiten dutenek soilik era mugatu

batean egiten dute, merkatuaren hertsaduren edo bere produktuen erosketa monopolioen menpe baidaude.

Langile aurreindustrialek beren produkzio prozesua kontrolatzen dute. Ekonomia primitiboan ekoizpen bitartekoak oso bakunak dira eta bere elaborazioa edoizainen eskutan dago. Gizakia da bitartekoak bere zerbitzura jartzen dituen eta ez alderantziz. Honek, bere prozesua erabat kontrolatzeko posizioan kokatzen du langilea, eta bera izango da nola produzitu behar duen erabakiko duena.

Gaur egungo langileek ordea, ez daukate beren kabuz produkzio prozesua zehaztu eta kontrolatzeko aukerarik. Soldatapeko langileak erakunde produktiboen baten barnean aukitzen dira eta bertan ematen den lanaren zatiketari buruz ez dute zeresanik.

Gainera, ekonomia aurreindustrialetan gizakiek beren lan-denboraren iraupena, intentsitatea eta etenaldiak erabaki zituzketen. Helburu baten lortzea premiazkoa suertatzen zenean lanaldia luzatu, lan erritmoa arindu eta atsedenaldiak gutxitzen zituzten; baina, lanaldia hau moztu edo erritmoa lasaitu zezaketen hau horrela gertatzen ez zeneran. Beraien lan-bizitza kontrolpean zeukatenean, lan gogorra eta aisialdirako uneak tartekatzen zituzten.

Gaur egun, ordea, langileek ez dute kontrolatzen ez lanaren iraupena, ezta ere lanaren intentsitatea. Makinak ezartzen dituen erritmoen, produkzio-plangintzako fluxuen eta zuzendaritzak ezarritako etekin-arauen menpe dago soldatapeko langilea.

Askatasuna eta menpekotasunaren arteko aldea suposatzen du desberdintasun multzo honek. *“La unidad económica de la producción de subsistencia es plenamente autosuficiente y económica y socialmente independiente. El artesano preindustrial también era sustancialmente independiente, en parte por sí mismo y en parte a través de su organización gremial. Incluso el siervo medieval tendría poco que envidiar al asalariado moderno, pues su dependencia del señor no era unilateral, sino parte de un sistema de dependencia y obligaciones mutuas, aunque asimétricas. Así, por ejemplo, no podía abandonar su tierra, pero tampoco ser expulsado de ella”*³.

Bestalde, gizarte aurreindustrialetan lanaren, aisiaren eta errito-ekintza sozialen arteko bereizketa ez da batere garbia; izan ere, ehiza bezalako aktibitate batean (gizarte ehiztari/biltzaileetan) hiru dimentsio horiek nahasten bait ziren.

3. FERNANDEZ ENGUIA, M: La cara oculta de la escuela: Educación y trabajo en el capitalismo. Siglo XXI, Madrid, 1990. p. 11.

Aktibitate produktiboek dibertimenduzko dimentsioa eta dimentsio soziala ere barneratzen dituzte; hiru aktibitate mota hauek etengabe gainjartzen dira.

Gizarte industrialia eta bertan bizi diren gizabanakoak ordea, lanaren (karga bat, esfortzu-iturri bat) eta aisiaren (gozamenarako eta norberearen zaletasunetarako denbora) artean zatituak aurkitzen dira. Kanpo-interferentzia guztietatik aske egon behar du lanerako denbora. Lanak eta ez-lanak konpartimendu iragazkaitzak osatzen dituzte.

Lehen esan dugun bezala, gizarte kapitalistetan lana esfera publikoan burutzen den bitartean, aintzinako munduan esfera pribatura mugatzen zen; espazioa ere modu desberdinean banatzen da. Gizarte aurreindustrialean, bizitza familiarraren garapenak, kontsumo/aisiazko aktibitateek eta funtzio produktiboek espazio berbera okupatzen dute. Bizitzarako beharrezkoak diren baliabideen produkzioa eta beren bizitza propioen erreprodukzioa –produkzioa eta kontsumoa– leku berdin eta baka-rean burutzen dira.

Hiri gizarte industrialean, produkzioarako espazioa eta kontsumorakoa lehenengo aldiz sistematikoki bereizten dira, eta espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa azken ondorioetara eramaten da. Produkzio-lekua eta bizilekuaren artean distantzia handia egoten da normalean; aisia eta lanaren arteko denborazko bereizketa azpimarratu duen banantze fisiko bat besterik ez da. Errito sozialek (ospakizun erlijiosoak, aktibitate politikoak) beren espazio propioa sortzen dute, eta famili tesuingurua gainditzen duten banakoarteko harreman sozialek ere.

Bereizketa bikoitz honek (fisikoa eta denborazkoa) aktibitate domestiko eta extradomestikoen arteko bereizketarekin batera, aktibitate produktiboen eta ez produktiboen bereizketarekin batera edo lan-zatiketaren garapenak bananduriko aktibitate ezberdinen arteko bereizketa funtzionalarekin batera, gizarte aurreindustrialekin alderatuz, gizarte industrialen ezaugarriak osatuko litzukete.

Jainkoaren zigorra izatetik, betebeharrak soziala izatera pasatzen da lana. Balore gorenaren kategoriara upatzen da. Gizartearen funtsezko eragile eta aberastasanaren muin subjektiboa dela kontsideratzen da lan produktiboa, eta horrek eremu ekonomikoaren esparruan pribilegiozko lekuan kokatzen du produzitzailea. Balio neurritzat hartzen da lana, eta honela, ondasun bati balioa gaineratzen diola pentsatuz gero, merkantzien arteko gonbaraketa eta neurketa ahalbidetzen du.

1.3. Alokairupeko lan-ereduaren sorrera

Gaur egun lanari buruz daukagun ideia kapitalismo industrialaren garaikoa da. Prestazio neurgarria eta trukakorra izatera pasatzen da lana, eta batzuk “Lanaren gizartea” deitu dutenaren merkantzia nagusia bilakatzen da lan-indarra . XVIII.

mendera arte produkzio materiala ez zuen razionaltasun ekonomikoak zuzentzen. Bizitzarako beharrezkoak ziren kontsumo ondasun eta zerbitzuak produzitzeaz arduratzen ziren morroi eta jornalarien esfortzua definitzeko erabiltzen zen lan kontzeptua. Gainera, ondasun eta zerbitzu hauek etengabe berritu eta produzitu behar ziren. Artisauak ordea, objektu iraunkorrak produzitzen zituzten eta beraz, ez zuten lan egiten, obratu baizik. Soilik morroiei eta peoiei ordaintzen zitzairen beren lanagatik; artisauak ordea, sindikatu profesionalak finkatzen zuten baremo baten arabera ordaintzen zitzairen heuren “obra”-rengatik. Sindikatuek finkatzen zituzten ere jornalarien eta ikasleen soldatak eta hauek ezin ziren negoziatu. Ekoizpen materiala ez zuen arrazionaltasun ekonomikoak zuzentzen.

Lanaren razionaltasun ekonomikoak –kapitalismo industrialak burutu behar izan duen eginbeharrak zailena– ez zuen soilik esan nahi izan aurrez zeuden ihardueraren ekonomiko batzuk metodikoagoak egin eta hobeto egokitzea. Razionaltasun ekonomikoak bizimoduan, baloreetan, harreman sozialetan iraultza bat suposatu zuen; ordurarte existitzen ez zen zerbaiten asmakuntza. Bere zentzuan (beharren asetzeari, adibidez) aktibitate produktiboa bere motibazio eta objektuaz bereizita izan, eta soldata bat eskuratzeko bide soila bilakatu zen; **bizitzaren parte bat izateari utzi zion eta bizirik irauteko beharrezko baliabidea bihurtu zen**. Lanerako denbora eta bizitzeko denbora bananduak izan ziren. Beste pertsonen erabakien menpe jarri ziren langilearen lana, bere lanabesak eta bere produktua. Amankomunean lan egiteak dakartzan satisfakzio eta plazerra ezabatuak izan ziren diruaz soilik eros daitezkeen satisfakzioen truke.

Langile-kontsumitzailea jaiotzen da: berak produzitutakoa kontsumitzen ez duen gizabanako sozial bat, eta berak kontsumitutakoa produzitzen ez duena; makineria sozialak definitu eta produzituriko merkantzia batzuk erosteko adina diru irabaztean datza lanaren funtseko helburua berarentzat.

Aintzinako askatasun eta funtsezko autonomiaren ideriarekin bukatu zuen razionaltasun ekonomikoak. Bere lanean alienatua izan den gizabanakoa, bere kontsumoan eta bere beharretan ere alienatua izango da azkenean. Irabazi eta gastatu daitekeen diru kopuruak mugarik ez dutenez, diruak izatea usten digun premiek ere ez dute mugarik izango. Lanaren eta beharren monetarizazioak bizitza filosofiek ezartzen zituzten mugak hautsiazko dituzte.

Truke-produkzioarako aldaketa litzateke bizirauteko produkzioetik hona eman den lehen pausorik garrantzitsuena. Lanaren zatiketaren garapenarekin ematen da beti pauso hau. Aldiberean, beharren eta produkzioaren arteko erlazio zuzen hausten da. Iadanik ez da kontsumorako produzitzen trukearako baizik. Gehiago produzitu gehiago irabazteko. Hala ere, egoera honetan bizirauteko produkzioaren sostengua badu oraindik laborariak; momentuero aukera dezake lana eta kontsumoaren (sarrera eta esfortzuen) arteko konbinazio komenigarriena, eta honela, merkatal kapitalismoaren presioak jasan ditzake.

Hurrengo pausoa honakoa litzateke: langile independentea soldatapeko langile izatera pasatzen da. Hau da, kapitalarekiko lanaren menpekotasun formala. Etxe-esferatik kanpo aritzera pasatuko da langilea eta produkzio bitartekoen jabetza kentzen zaio. Hala ere, produkzio prozesuaren hasieran eta bukaeran kokatzen da kapitalista, langileari bere lan indarraren truke bizirauteko baliabideak ematen dizkio eta azken produktuaz jabetzen da; baina oraindik ez du lan prozesua kontrolatzen; elementu indapendentea izango balitz bezala burutzen du langileak prozesu hau. Produktuarekiko, produkzio-bitartekoekiko (beste pertsona batenak) eta bizi-baliabideekiko (bere lan-indarraren truke lortzen dituenak, eta ez bere lanaren emaitza edo fruitu zuzen bezala) alienazio posizio batean aurkitzen da, baina oraindik lan-prozesua, bere erritmoa eta intentsitatea langileak kontrolatzen ditu.

“El paso final en la degradación del trabajo es la transición a lo que Marx llama la subordinación real de este al capital. Este tiene lugar cuando el capitalista, en vez de limitarse a aceptar los procesos de trabajo establecidos y tratar simplemente de aumentar el plusvalor extraído mediante la prolongación de la jornada, reorganiza el proceso mismo de producción. La división del trabajo tradicional heredada de los oficios deja paso a la descomposición del proceso de producción de la mercancía en tareas parcelarias”⁴.

Hala ere, lehen kapitalista industrialek erresistentziekin topo egin zuten. Gaur egun ezagutzen dugun lan horretan integratzeko borondate natural eskasa izan du beti pertsonak. Kapitalistarentzat ezinbestekoa zen lanaren kostua kalkulagarria eta zehaztasunez aurrikusteko modukoa izatea, baldintza hauek betetzen baziren solik kalkula zitezkeelako produzituriko merkantzien prezio eta bolumena, eta aurrikusitako mozkina ere.

Lanaren kostua kalkulagarria izateko beharrezkoa zen bere emaitza ere kalkulagarri izatea. Posible izan behar zuen gauza independente (langilearen banakotasun eta motibazioekiko independetea) bat balitz bezala neurtu ahal izatea. Honek suposatzen zuen produkzio prozesuan sartzerakoan bere berezitasun eta nortasunaz, bere xede eta nahi propioetaz, desjabetu egin behar zela langilea. Langileak lan-indar soil bat izan behar zuen, beste edozein langileren lan-indarrarekiko trukakorra eta gonbaragarria; beste persona batzuen xedearen zerbitzura, eta langileak xede hauek inongo interesik ez duelarik.

Hasieran ezinezkoa izan zitzaizen emaitzen araberako soldata ezartzea. XVIII. mendearen bukaerako langileentzat lana oso aspaldiko bizi-erritmoan integraturiko intuiziozko trebetasuna zen eta gehiago irabazteko xedeak bultzaturik gehiago luzatu edo intentsifikatu ezin zitekeena.

4. Ibidem p. 17.

“ El obrero no se preguntó cuánto podría ganar al día rindiendo el máximo posible de trabajo, sino cuánto tendría que trabajar para seguir ganando los dos marcos y medio que ha venido ganando hasta ahora y que le bastan para cubrir sus necesidades tradicionales”⁵.

Egunez-egun lanaldi oso bat betetzea gorrotatu egiten zuten langileek, eta hau izan zen lehenengo fabriken porrotaren arrazoi nagusia.

Gorrotu hori “alferkeriari” eta “nagikeriari” leporatzen zion burgesiak. Lanaldi honen betetzea lortzeko beste modurik ikusten ez zutenez, alokairu oso bajuak ordaintzea erabaki zuten, eta horrela, langileek bizirik irauteko egunero gutxienez hamar ordu lan egin beharra zeukaten aste osoan zehar. Hau lortu ahal izateko honako pausoak eman behar izan ziren:

1) Beste bizibiderik aurkitzeko aukera galerazi langileei. Horretarako beharrezkoa izan zen nekazariak soroetatik ateratzea, eta tradiziozko lanbideak porrotera eta deuseztatpenera bultzatzea.

2) Sektorez-sektore, industriaz-industria, fabrikaz-fabrika patroik eta langilearen arteko gatazka globalez osaturiko kate luze baten emaitza besterik ez da gaur egun ezagutzen dugun lanaren antolaketa.

3) Beharrezkoa izan zen kultur-iraultza sakon bat. Ongi buruturiko lan pertsonalarekiko begirune sakon batetatik makinaren fetitxismora pasatu zen. Kontsumo-beharren asekontzaren eta horretarako beharrezko lan-efortzuaren arteko oreka bilatzeari utzi zioten, eta horren ordez, amaierarik gabeko kontsumoaren mitoarekiko ongizatearen identifikazioa nagusituko da. Lana bere barne-balio material eta moralen arabera epaitua izan behar duen biziaren parte integrala dela kontsideratzen duen estimazioak, amore eman zuen kanpo-satisfakzioak lortzeko bide soila dela dioen iritzi orokortuaren aurrean. Artisau eta nekazarien elkarrenganako obligazio, elkarrekikotasun eta solidaritatezko komunitate-sareak, eta nekazalgoaren eta nobleziaren arteko eskubide eta obligazio-kode zorrotza desagertu ziren, eta hauen ordez, harreman sozialen atomizazioa eta indibidualismoaren hedapena nagusitu ziren.

4) Harreman sozial berriak onartu nahi ez zituztenei zuzendutako politika errepresibo sistematikoa behar izan zen. Industrializazio garaiaren hasierako izakera masiboa izan ez badu ere, alde batera gelditzea aukeratzen zutenen jazarpena gaur egun arte eman da. Berriz ere indar haundiz agertu da, krisi ekonomikoak pertsona talde haundiak ezarritako ekoizpen harremanetatik kanpo bultzatu dituen

5. WEBER, M: *Ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Península, Barcelona, 1969. p. 50.

garaietan eta gaur egun irauten du eskekotasunaren errepresio bezelako adierazpenetan, diru-laguntza sozialak lortzeko ezarri diren betekizun zorrotzetan, sari estatalak jasotzen dituztenengan ezartzen diren kontroletan, langabezi saria jasotzen dutenen iruzurraren inguruko psikosian, eta antzeko zeinuetan. (lehen pobreen legeak izan ziren, hauek alferkeria eta nagikeriaren kontrako neurriei bidea zabaldu zieten; 1563an Ingalaterran derrigorrezko lana ezarri zen; workhouseak ugaritu zien, nagiak izatearen susmopean jausten ziren guztiak giltzaperatzeko, derrigorrezko lana ezartzeko eta esku lana erreklutatzeko).

5) Beharrezkoa izan zen, gizabanako berri bakoitza ekoizpen erlazio berrietan modu paketsuan sartu zedin, beharrezko mekanismo instituzionalak finkatzea. Adin heldura iristen diren pertsona gehienak emanda dauden zenbait baldintza aurkitzen dituzte:

– ez dago beraientzat, bizitzeko behar dituzten bitartekoak lortzeko, soldatapeko lana ez den beste biderik. Errefusatzen dutenak egoera marginal batera erbesteratuak dira eta kultura dominanteak guzti hau bedeinkatu eta ugaltzen du. Honekin nahikoa izango litzateke, gaur egungo lan prozesuak “naturalak” izango balira edo pertsonak material elastikoz eginak egongo balira; baina ez da nahikoa gure lan prozesua artifiziala delako, historikoki baldintzatua eta pertsonak beraien nahiak eta zaletasunak dituztelako edo garatzen dituztelako; honekin ez zen nahikoa, eta beraz,

– “Beharrezkoa izan zen lanean hasi aurretik pertsona hauek lanerako gizarteratzea eta horretarako eskola asmatu eta birasmatu zen. Ikasgelak, ekoizpen prozesu kapitalistaren harreman sozialetara ohitzeko lekuan bihurtu ziren, gazteak eta umeak lanerako prestatzeko gune instituzional egokian. Helburua hauen inpultso naturalak menperatzea zen eta beraien ohiturak apurtzea ekoizpen harreman sozial berriak onartzera behartu arte”⁶.

Industrializaziotik lanaren eredu eta definizio bat azaleratzen da, bere osagabetasunean, beste batzuk alde batera usten dituenak: enplegua lanpostu bezela identifikatzea sinpletasun haundikoa da.

Gizarte kapitalistan burutzen diren lan guztiak ez dira berdinak. Intelektualen, idazleen edo artisten iharduerak, besteak beste, iraupeneko ekonomia-ko langileek izaten zuten askatasun maila berdina izan dezaket. Baina horrexegatik, ez ditugu lantzat hartzen honen zentzurik zorrotzenezan eta lantzat hartzen ditugunean ordainduak direlako izaten da.

6. FERNANDEZ ENGUIA, M: op.cit.

Salbuespen hauetatik kanpo, kasu esanguratsuagoak ere badaude –profesional liberalak, nekazari independenteak eta langile autonomoak deitutako hoiek– baina arazoa batez ere portzentaien araberakoa da.

Gizarte prekapitalistetan, forma nagusia lan autonomoa (nahiz eta produktuarekiko zerga batzuk ordaindu behar) edo behartutako lana ziren (beti ere langileak prozesua kontrolatzen jarraitzen zuelarik). Gaur egungo gizartean, lan forma autonomoek jarraitzen duten arren, biztanleria aktiboaren gehiengoa, diruaren ordez lan egiten duena, lan eredu degradatuen menpe dago.

1.4. Lanaren garapenaren jarraibideak

Sintesi modura, lanaren garapenaren norabidea ondorengo puntuetan laburtuko dugu,

1.- *Lan prozesua eta bere helburuaren arteko disoziazioa.* Lana finkatutako premiak asetzeko beharrezkora mugatzetik, premien gehitze mugagabera eta ekoizpenaren garapen etengabera.

2.- *Langileak bere lan prozesuarekiko kontrola galtzen du.* Iharduera kreatibotik aurrez antolatua dagoen osotasun baterako pausua ematen da. Langileari bere prozesuarekiko kontrola kentzean lan intelektual eta lan manualaren arteko zatiketarik dimentsio berri bat hartzen du, eta lan konplexu eta kualifikatutik lan sinple eta deskualifikatura dihoan bidea hasten da; bere ezagutza profesionalaz arrot sentitzen den artisautik, lanbide bat ere ez menderatzen ez duen lanbide guztien morroira. Asmatzarekin zerikusia duten funtzioak gero eta gehiago urruntzen dira gehiengoaren betebeharratik eta erakunde produktiboetako zuzendaritzaren esku kontzentratzen dira; langilearen betebeharrak egite funtzioetara murrizten direlarik. Lanaren deskualifikazio eta degradazio prozesua da.

3.- *Eginbeharren izakera kualitatiboak bideratu duen prozesu batetik eskusiboki denbora aurreztera zuzenduta dagoen beste prozesu batera.* Gizarte industrialetan zurrunki zehaztua dagoen denborazko programa bat jarraituz lan egiten da eta denbora unitateak kontutan hartuta ordaintzen zaie langileei; orduko lanaren arabera edo hilabete edo urteko lanaren arabera.

4.- *Langileak bere lanaren intentsitate eta erregularitasun edo irregularitasunari buruzko kontrola ere galtzen du.* Langilearen gogo edo egoerara lotutako iharduera-denbora batetik makinaren denbora erregularrera.

5.- *Betebehar ezberdinez osatutako lan prozesu diferente batetik, betebehar sinple zenbateko murriztu baten, burutze errepikagarri, monotono eta ohizkoetara pasatzen gara.* Errealizazio pertsonalerako leku eta denboratzat hartu zitekeen lan

tipo batetik, beharrezko gaitz ezinbesteko bat bezela bakarrik onartua izan daitekeen beste batera.

1.5. *Zergaitik ematen da soldatapekoeko lanarenganako –lan indarra diruagatik trukatzeari– garapen orokor hau?*

Fernandez Enguitak adierazten dituen arrazoiak lau dira⁷:

1.- *Esklabutzarekiko soldatapeko lanak duen abantaila, kapitalista langilearen ehiza eta hazkuntzatik despersonalizatzen duela da.* Gainera adinagatik edo beste edozein arrazoigatik lan egiteko edo kontsumitzen duena baino gehiago ekoizteko gaitasunik ez duenean, bere mantenduaz ere despersonalizatzen du. Esklabuak erosteak, denbora luze baten ondoren bakarrik berreskuratua izango zen, kapital bat ibilgetzea esan nahi zuen; bitartean helburuztat esku lanaren erreproduzio kostuak berdintzea duen soldata askoz arinago berreskuratzen da. Esklabutzak kapital mugiezinean inbertitzea esan nahi du, soldatapekoak bakarrik kapital zirkulatzailan.

2.- *Plusbalioa ateratzerako orduan ere morrontza ez zen hain eraginkorra izan.* Nekazariak beraien nagusien lurra lantzeko obligazioa zuten arren, latifundioetan esku-lana nabarmenki alferrik galtzen zen. Jauntxoek nekazariengan ezartzen zuten esplotazio erreala muga fisiologikoengandik oso urruti zegoen, aldiz kapitalismoa asko urreratu da muga horretara. Morroiek nagusiaren lurretan baino askoz gehiago errenditzen zuten beraien lurretan. Zergen igoera baten beldur ez zituzten lur zati haundiagoak nahi izaten.

3.- *Soldatapeko lanak kapitalistari malgutasun maximoa eskeintzen dio.* Lan-indarraren erreproduzio kostuen kargu, esplotatzen duen neurrian bakarrik hartu behar du, ez gehiago. Gainera eguneroko eta belaunaldiarteko erreproduzioaren kostu asko beste ekoizpen modu batzuetara desbideratu dezake, batez ere ekoizpen domestikora eta burokratikora –ongizate gizartectako sektore publikora–.

Langileak badaki bere lanpostuaren mantenimendua zuzenki –kalera botaz– edo zeharki –enpresaren porrotaren bidez– bere produktibitatearen menpe dagoela. Badaki ere, bizirik irauteko beharrezko bitartekoen lortzea, bere lanaren esplotazioa onartzearekin lotuta dagoela.

Ekoizpen domestikoak, aldiz, lan intentsitate eta autoesplotakuntzari beti mugak jartzen dizkio, nahiz eta honek, behar-beharrezkoak ez diren premiak asetzeari uko egitea suposatu .

7. Ibidem p. 26-7-8-9.

4.- *Gaur egun Lana Antolatzeke Modu Berriak bezela ezagutuak diren hoiek forma tradizionalak –fordista eta taylorista– baino emankortasun haundiago bat lortzen dute, kontutan hartzen badugu lan erregular eta intentso bat burutzeko beharrezko ohiturak zakonki errotuta daudela belaumaldi helduetan. Gainera gaur egungo merkatuen izakera aldakorrak, kostuen egonkortasun ezak eta kontsumitzaileen artikulu berezienganako zaletasunak, ekoizpen forma malguetara bultzatzen dute.*

2. Atala: lanaren inguruko joera eta aldaketak

2.1. Iharduera laboralaren definizio konplexuago baten beharra

Lanak merkantzia bezela hartzen dituen ezaugarriak gogora ditzagun:

- esfera publikoan ematen da.
- besteen erabilerara zuzentzen da.
- beste edozein merkantzia bezela saltzen da.
- neurtu daitekeen denbora batetan burutzen da eta ahalik eta errendimendu altuenak lortzea da bere helburua⁸.

Industrializazioaren hasieratik gaur arte, hazkunde ekonomikoaren protagonista izan diren lan gehienek, ezaugarri hauek betetzen zituzten.

Enplegua lanaren definizio bezela ezarri da. Lan harremanen asalarizaziorako joeraren ondorioz edozein iharduera lan merkantilerak murrizten da. Zerbitzuetako iharduerak definizio honetara egokitzeke zailtasunak dituzte, sektore honetako enplegu askok lanaren ezaugarrietako bat edo beste betetzen ez dituztelako (suhiltzaileak, medikuek, gizarte laguntzaileek, poliziak, irakaskuntza,...)⁹ Enplegu guzti hauetan zaila da errendimendua neurtzea; merkantilizatuak izateko zailtasunak dituzten iharduerak dira.

Dena den, ekonomian eta lan merkatuan eman diren azken aldaketek, enplegu kontzeptuaren birdefinizio batera garamatzate.

Gaur egun, lan asalarizatuaren barruti tradizionala zalantzan jartzen duten bi eratako arazoak ematen dira.

8. GORZ, A: op.cit, p. 181-2.

9. Ibidem, p. 184-90.

1.- Aipatu ditugun eta lan kontzeptu tradizionaletik "kanpo" gelditzen diren iharduerak gero eta garrantzitsuagoak dira. Zentzu honetan, bolondres eta solidaritate sozialarekin zerikusia duten lanen zabaltzea eta balioztatzea aipatu beharra dago; edo, aurrekoaren alderantziz, langabesiaren ondorioz, lan ez merkantilak soldatapeko enpleguetan bihurtzeko joera. Informalizazioa enplegu formalaren esparruetan sartzen ari da bere oinarriak kolokan jarritz.

2.- Bigarren motako arazoak, sektore industrialean azken bi hamarkadetan eman diren eraldaketekin daukate zerikusia; berregituraketa batzuentzat eta desindustrializazioa bestentzat, enplegu modeluaren definizio gaitasunak murriztu dituzte. Enpleguak zerbitzuetan beste egitura bat dauka, askoz ere heterogeneoagoa da. Bulego eta zerbitzuetan lan egiten duten langileak barnean sartzen ditu; baina baita ere, norbere kabuz lan egiten duten langile independenteak eta baita enplegu eze-gonkorak betetzen dituzten kualifikazio eta errenta txikiko langileak ere.

Industria eta zerbitzuetan eman diren eraldaketek soldatapeko lanaren oinarriak berrikustera bultzatzen gaituzte.

Hauek dira, lan asalariatu ereduaren definizio tradizionalari planteatzen zaizkion arazoetariko batzuk. Kontabilitate ekonomikoak, ekonomia formalean bakarrik ematen diren elkartrukeak eta lana neurtzen du eta hau, lanaren definizio konplexuago bat oztopatzen duen sinplifikazio bat besterik ez da.

Soziologiaren arloan planteatzen ari diren sailkapenek, arazoa modu zabal eta konplexu batetan planteatzen dute eta enplegu formalaren alboan, dirua lortzeko burutzen diren iharduera irregular mordo bat ere barnean sartzen dira eta baita, "erabilera balioa" sortzen duten zenbait iharduera ere.

Enzo Mingioneek adibidez, iharduera bat lan bezela definitzeko jarraitzen duen erizpidea ondorengoa da: **Honen ekarpena taldearen biziraupen materialean**¹⁰ Erizpide hau garrantzitsua da, kultura eta talde ezberdinen errealitate materialaren eta hauen dimentsio historiko, kultural eta sozialen berri ematen digulako. Gure arreta erreproduzio sozialaren eremura zuzentzearen beharra azpimarratzen du. Lanaren heterogeneotasuna faktore sozial eta faktore ekonomikoen, ekoizpena eta erreproduzioaren, eragin bateratuaren emaitza da. Biziraupen material kontzeptua eraikin sozio-historikoa da.

10. MINGIONE, E: Las sociedades fragmentadas, M^oTrabajo y Seguridad Social, Madrid, 1993. p.114-16.

Mingionek kontutan hartzen dituen lan iharduerak lau dimentsioen arabera ezberdintzen dira:

- iharduera formal/informalak
- legezkoak/ ilegalak/ erregulazio legalik gabeak
- monetarioak/ ez monetarioak
- eremu publikoa/ eremu pribatua

Dimentsio hauek modu desberdinean konbinatzen dituzten 8 tipo deskribatzen ditu.(1.Irudia) .

Formales	Informales	No reguladas legalmente							
Legales	Ilegales	Monetarias				No monetarias			
		Públicas				Privadas			
		I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII
Actividades completamente formales	Mezcla de actividades formales e informales	Actividades que eluden la legislación fiscal, laboral o de seguridad social	Actividades delictivas	Actividades remuneradas o transacciones no establecidas legalmente	Actividades no remuneradas o reciprocas o de buena voluntad	Actividades destinadas al autoconsumo (dentro del hogar)	Trabajo doméstico < normal >		
Ejemplos	Actividades formales que contienen elementos informales: p. ej. pago parcial en dinero <negro>	Segundos empleos (negros); empleos sin contrato; empleo informal por cuenta propia	Robo; tráfico de drogas; fraude	Trucque, lavado de coches realizado por niños	Trabajo reciproco; ayuda entre vecinos; diversos tipos de trabajo social y de buena voluntad	Huertos para autoconsumo	Limpieza; cuidado de los niños; preparación de comidas		

Fuente: Adaptado de Mingione, 1985, pág. 20, según la modificación de Boer

Tipologia honen balioa lanaren definizioan sakontzea uzten duela da, horrela definitu daitezkeen iharduera multzoa zabalduz. Denboraren joanak eta aldaketa sozioekonomikoek lan ihardueren definizio ez estatiko bat eskatzen dute, lana iharduera aldakor bat bezela kontsideratzera bultzatzen dute eta “Zientzia Sozialek” sistema kapitalistan ezartzen den lan eta enpleguaren arteko baliokidetasun tradizionalarekin bukatzen lagundu behar dute”.

Mingionek proposatutako erizpideak gaur egungo ekonomisismoa –lana ondasun eta zerbitzuak produzitzen dituzten iharduerak soilik osatzen dute– gainditzen du. Taldearen erreproduziora zuzendutako erlazio sozialen, harreman ekintzen eta sozialtasunaren “produzioa”, lanaren kontzeptualizazioan dimentsio berri bat bezela adierazten da.

Behar bada, lan industrial eta merkantilaren garai oraindik ez da bukatu, baina gaur egun azaltzen den bezela lana barruti estuegia da, bere definizioaren konplexutasunari aurre egiteko.

Raymond Pahlek bere aldetik, Mingionek bezela ekonomia eta enpleguan ematen ari diren informalizazio joerak azpimarratzen ditu. Dena den, lan asalarizatu kontzeptuari egiten dion kritikak enplegu kontzeptu beraren gutxiegitasun endogeneoak, joera berriak baino gehiago azpimarratzen ditu.

Lanaren kontzepzio klasikoak, lana, soldata baten truke langileak enpresariari bere gaitasunak eta indarra eskeintzen dioneko iharduera bezela ulertuta; ez du lortzen errealitatean ematen diren egoera ugari eta ezberdinak barnean sartzea. Definizioa gutxiegia da aniztasunaren berri ematen ez duelako.

Pahlek planteatzen duena da, **lana murgilduta dagoen erlazio sozial bereziki lotuta bakarrik uler daitekeela**¹¹ eta enplegu konkretu bat bereizten duten dimentsio eta egoera ezberdinak aztertzerakoan, lanaren inguruko erlazio sozialak, kontzeptu ardatz bezela kontutan hartzea proposatzen du.

Egonkortasun, segurtasun, errenta, kualifikazio edo bereizketa sexualari buruzko desberdintasunek enplegu erlazio batzuk bereizteko kontextu bezela balio dute. Definizio tradizional huts egitera zuzenduta dago, zaila delako hitz bakararekin aurreko dimentsio guztien kontu ematea.

Enpresari bat eta enplegatu bat egoteak, enpleguzko erlazio sozial bat dagoela esaten digu; gure gizarte nagusi dena, baina erlazio hau emateko moduak uga-

11. PALH, R.E: División del trabajo, M° Trabajo y Seguridad Social, Madrid, 1991. p.166.

riak dira eta emplegutik kanpo hatzeman daitezkeen iharduera moduak ere, eta beraz, era aberatsago batetan kontzeptualizatu beharra dago.

Berak disenatu zuen tipologiak erakusten digu, nola iharduera berak, kokatzen dugun kontextuaren arabera, enpleguzko erlazio sozial desberdinak azaltzen dizkigun.

Azaltzen duen adibidea lisatzen duen emakumearena da. Arropa bat lisatzen duen emakumeak, iharduera honek suposatzen duen erlazio sozial tipoari dagokionez, interpretazio aukera ezberdinak eskeintzen dizkigu. Lisatzen duen emakumea arropak egiten dituen enpresari batek kontratatu zezakeen; kasu honetan, lan asalaratu bat izango litzateke. Emakumeak arropa denda bat eduki dezake eta saltzen jarri aurretik arropak lisatu ditzazke; langile autoenplegatu bat izango litzateke kasu honetan. Bi forma hauek, administrazio publikoen kontrolerik kanpo burutu daitezke eta araudietatik kanpo; ezkutuko lan asalaratuaren eta ezkutuko ekoizpen merkantil txikiaren aurrean aurkituko ginatke.

Lisatzea erreproduzio sozialera zuzenduta egon daiteke, diru ordainik jaso gabe. Norbaitek ezin duenari laguntzea helburutzat hartuz honen erropak lisatu ditzazke; solidaritate sozialean oinarritutako lanetaz ariko ginatke hitzegiten.

Iharduera konkretu baten burutzearen deskripzio guzti hauetan, lan tipoa, murgilduta dagoen erlazio sozial ereduaz aztertuz, uler daiteke. Eginbehar konkretua sailkatu aurretik beharrezkoa da ezagutu eta ulertzea, zein egoeratan erabaki zen lisatzea eta zein den lisatzen duen emakumearen eta bere ingurunearen artean dagoen botere oreka erlatiboa. Honek kontzeptualizazio soziologikoan aurrerapausu bat suposatuko luke.

Dena den, Pahl bere tipologiaren aurrean pixka bat eszeptiko agertzen da eta eraikuntza sozial kapitalistetan bizitza aipatutako iharduera ezberdin hauei, balio desberdina ematen diela kontutan hartzen du. Lan asalarizatu produktiboa nagusi da eta besteak, bigarren mailakoak, honen menpe daude; iharduera guztiek ez dute berdin balio.

2.2. Gizarte asalarizatuaren krisialdia?

Gure gizartean, ekoizpena nagusiki merkatuak arautzen du eta lan indarra ere beste edozein merkantziaren antzera ekoizpen prozesura erantzen da. Estatu espainiarrean biztanleria aktiboaren 3/4 ak enplegu asalarizatu bat dauka; aktiboaren artean egoera nagusia da.

70. hamarkadaren hasierako krisialdi ekonomikoaren ondoren sistema ekonomiko kapitalistaren funtzionamendua arrazionalduko zuten zenbait estrategia for-

mulatu ziren eta ondorioz 80. hamarkadan zenbait eraldatze hatzeman izan ditugu mendebaldeko gizarteetan.

Eraldaketa hauek ekoizpenaren antolaketaren eremuan, esku lanaren gestioan eta lan prozesuak arautzen dituzten esparru normatiboan eman dira bereziki. Zentzu honetan aipatu ditzakegu, besteak beste, aldi baterako kontratuen ugaltzea; informazioaren teknologien ugaltzea; langabezia haundi eta estruktural bat eta sindikatuen iharduera moduen krisialdia.

Bigarren Gerrate Mundialaren ondorengo berreraikitze garaiaren aldi berean, ekoizpen modu Taylorista-Fordistaren zabalkuntza eman zen. 50. hamarkadatik 70.hamarkadaren hasierarte ekonomiaren hedapena sostengatu zuten oinarriak *“Producción en serie”* eta *“Consumo de masa”* deritzanak izan ziren.

Eredu Taylorista-Fordistak kontutan hartzeko moduko produktibitatearen gehitzeak eragin zituen eta “enplegu betera” zuzendu gintuen esku lanaren erabilera ugari bat. Langile gehienak asalarizazio prozesu horretan sartzen dira eta merkatuak gainezkatzen dituzten produktuak kontsumitzeko aukera eskuratzen dute. Mozkin enpresarialak gehitzen dira eta ondorioz inbertsio eta soldatak. Inbertsioen ondorioz lanpostu berriak sortzen dira eta soldaten haunditzeak berriz kontsumora zuzentzen dira. Sekuentzia hau 70.hamarkada hasi eta berehala hausten da.

Krisiaren azalpenak ugariak dira. Ekonomista konbentzionalek aspektu koiunturalak azpimarratzen dituzte eta inflazio eta soldaten jetsiera batekin laster suspertuko dela aurreikusten dute. Beste batzuk aldiz, aspektu estrukturalak azpimarratzen dituzte; sistema kapitalistaren funtzionamenduari erlazioz atutako arazoak. Nahiko onhartua dagoen iritzi baten arabera, krisiaren jatorria ekoizpen eredu fordistaren zurruntasunetan dago. Ereduaren narriadura ondorengo arazoiek azaltzen dute:

- Teknologiaren eta lanaren antolaketaren inguruko zurruntasunek.
- Lan harreman eta araudiaren zurruntasunak.

– eta azkenik, “Estatuaren krisi fiskala”: gastu sozialak eutsiz, eredu fordistaren krisia interpretatzen lagundutzen digun beste faktore bat da.

Enpresetako zuzendaritzen aldetik zurruntasun hauei irtenbide bat aurkitzeko eman diren erreakzioek, 70.hamarkadaren erdinguruan, ekoizpen sisteman eta lan harremanetan praktika berriak sortu dituzte.

Aldaketa guzti hauek zuzentzen dituen ideia nagusia **malgutasun** ideia da. Bere aplikapena ekoizpenaren antolaketatik hasi eta teknologien aplikapeneraino edo esku indarraren gestioraino hedatzen da. Fordismoaren gaitzen aurka malguta-

suna panazea gisa eskeintzen da, eta era berean, ordenu industrial berri bat eraikitze-ko bide kutuna bezela, *baliabide guztien erabilera malgua da enpresaren efikazia hobetzeko bidea*.

– *Antolaketa eta teknologia berrikuntzei dagokionez malgutasuna*. Lan prozesua geroz eta abstraktuagoa da eta gaitasun berriak eskatzen zaizkie langileei. Lanabesen erabilera konkretutik makinek ematen diguten datu formalizatuak interpretatzera pasatu gara. Lan objektuaren erabileratik, kate automatikoen helikatze eta gainbegiratzera.

Coriaten ustez¹², igotzen diren kualifikazioak ondorengoak dira: fabrikazio prozesuaren ezagutza abstraktua; datu formalizatuaren tratamendurako gaitasuna; prozesuaren administrazioarako ideiak –planning eta timing– ; menpekoekin edo hierarkia altuarekin hitzegiteko gaitasuna.

Dena den ideia hauek zehaztu egiten ditu: gaitasun gutxi eskatzen dituzten eginbeharrak ez dira desagertu, langile espezialistak, titulazio bajuko langileak, ofiziozko langileak eta langile profesionalak balioa galtzen ari dira. Atxitik, ekoizpenaren teknikoak eta sistema automatizatuak erabiltzen dituzten langile operadoreak etorkizun ona dute. Aldaketa teknologikoarekin ez dute denek irabasten.

– *Deszentralizazio produktiboa eta enpresa arteko lan zatiketari dagokion aldaketak*. Enpresa haundiaren neurria gutxitu nahi da, zenbait abantaila lortzeko helburuarekin. Autore batzuen ustez, fabrika bakoitzean pilatzen den langile kopurua gutxitzean, langileen eta hauek osatzen dituzten erakundeen ekintza gaitasunak gutxituko lirateke. Bestalde, enpresa haundiari hain errentagarriak ez zaizkion sektzioak jaregiteko balio izan du eta hauek enpresa txikiagoei kontratatzen dizkiote; eta ondorioz, azken hauen baldintzak gero ezegonkorragoak dira.

Beste autore batzuk deszentralizazioa lan prozesu eta baldintzetan eman diren aldaketekin lotu dute.. Badirudi enpresa haundiak bizilekuetan, etxean, egiten den lanaz baliatzen ari direla eta “izkutu ekonomiaren” beste mota batzuetaz ere.

– *Desregularizazioa eta esku lanaren erabilera malgua*. Malgutasun hau enpresariak planteatu duten moduan, lan indarra merkatuko eskarien gora-beherei lotzeko aukera da. Beraz, malgutasunak kontratatzeko edo kalera botatzeko erreztasuna esan nahi du –kanpo malgutasuna. Dena den jakitun batzuen ustez, kalitatezko ekoizpen berriak eskatzen dituen berrikuntza eta formazio gaitasunak ez dira kalera botatzeko erraztasunekin konpontzen. Barne malgutasuna zaintzea beharrezkoa da.

12. SANTOS ORTEGA, J.A.: Sociología del Trabajo, Tirant lo blanch, Valencia, 1995. p. 162.

Fordismotik ondorioztatzen den lan egonkorraren eredutik, egoera ezberdina elkartzen dituen lan eredu batera pasatu gara. Enplegu egonkorrekin batera, enplegu ezegonkorrak, atipikoak, normaltzen hasi dira: aldi baterako kontratuak, denbora partzialekoak, praktiketakoak, etab.

Kontratazio modu berri guzti hauek, enpresa sistema ekonomiko konpetitibora egokitzea bermatzeko hartuak izan dira; honen kostua, aldiz, langile ugariaren segurtasun ezaren eta zalantzaren haunditzeak izan da –batez ere gazteak eta emakumeak–. 90.hamarkadaren erdi inguruan aldi baterako kontratuak dituzten langileen kopurua %35 ekoa da; kopuru hau 1987an %16a zen. **Badirudi enplegu egonkorraren eredu deskonposatzen ari dela eta enplegu ezegonkor eredu berri bat normalizatzen ari dela.**

Enpleguaren ereduaren eman diren eraldaketa hauek, lan araudiaren erregulazioan eman diren aldaketekin batera eman dira; desregulazioa estrategikoki erabili da, aurreko garaian langile erakundeek lortu zituzten babes mailak txikiagotzeko asmoz.

Joera hauek, behar bada, enpresetako emaitza ekonomikoak hobetuko dituzte; baina, estratifikazio sozialean eta klase sozialean eragina duten enplegu egoera desberdinak disenatzen ere laguntzen dute.

Lan merkatuaren segmentazioa, langile kolektibo desberdinen artean adinaren, sexuaren eta etniaren arabera ematen ari diren ezberdintasunak ulertzeko prozesu nagusi bezela aztertua izan da. Segmentazioak bi bloketan zatitutako lan merkatuaren egitura bat suposatzen du, bat zentrala eta bestea periferikoa.

Sektore zentralerako langileek soldata hobeak jasotzen dituzte, kontratu egonkorragoak, promozio aukera haundiagoak; segmentu periferikoan kokatzen diren langileak alderantzizko egoeran dauden bitartean.

– *Enpresarien aldetik praktika diskurtsibo berriak eta ekintza sindikalaren berregituraketa.*

Azkenik, eta *enpresarien jarrerari dagokionez* esan beharra dago enpresariak ez dituztela soilik beraien enpresak berregituratu; beraiek gizartearen duten imajina ere berregituratu egiten dute. 50-60. hamarkadetan lanaren heroiak langile klasetan bazuten beraien jatorria, 70. hamarkadaren bukaeran eta batez ere 80. hamarkadan zuzendariak, enpresariak eta exekutiboak izango dira aberastasunaren eta hazkundearen sortzaile bezela proposatzen direnak.

Merkatuak eta ekonomiak gobernatzen duten gizarte honetan, bere interes partikularrak lortzeko iharduten duen gizaki arrazionalaren ideologia enpresariala-

ren barneratzea, jokaera posible bakar bezela planteatzen da. Mugimendu hau, ideologia sindikalen desegituraketa beste mugimendu batekin batera ematen da.

Mende bukaera honetan enpresariak kontrolatzen dituzte ideiak eta sindikatuak zuzendu izan dieten krisialdiaren erruak arrakasta izan duela dirudi. Afiliazio kopuruak beherantz egin du, langileria desmobilizatu egin da eta hauek defendatzen zituzten solidaritate eta lankidetzaren baloreak teknogiaren mundu honetan zaharkitua izatera pasatu dira.

2.3. Lan merkatuan eman diren aldaketak

Espainiako lan merkatua bereizten duten ezaugarri nagusietaz hitzegiterakoan, bost joera nagusi aipatu behar dira.

1.- Iharduera ekonomikoaren sektoreetan eman diren aldaketak. Hirugarren sektorearen egungo garrantzia eta honek enpleguan duen eragina.

Enpleguaren inguruko berrikuntza nagisienak hirugarren sektorean ematen dira. 1964 urtearekin konparatuz (%32,2) enplegu totalaren %60 sektore honetan ematen da. Zerbitzuen hedatze honen ondorioz lana kualitatiboki aldatu da; betebeharrak errepikagarri eta estandarizatuak gutxituko dira eta berrikuntzekin, harremanekin, prozesuen gestioarekin, pertsonen zuzendutako zerbitzuekin eta ekoizpen prozesu automatizatuaren gainbegiratze, konponketa eta garbiketarekin zerikusia duten lanak nagusituko dira.

Baina terziazazioak aldaketa soziokultural batzuk dakar, unibertso profesional ezberdinak atomizatu egiten dira betebeharrak bakoitzak konpromiso psikiko, harreman eta helburuekiko identifikazio logika propioa duelako, eta ondorioz, lanari lotutako solidaritate kolektiboak desegin egiten dira.

OCDEek hirugarren sektoreari etorkizun onuragarria iragartzen dio eta lanpostu intelektual eta zientifikoek, tekniko eta administratiboek eskari gehien jasoko dutela uste du; konkrituago: gestio zerbitzuek, informatikak, datuen tratamenduak, zerbitzu kontableak, juridikoak, osasunarekin lotutakoak eta sozialak, eta turismo eta aisialdirako ekintzek. Zerbitzu pertsonalak eta enpresei zuzendutakoak hasi egingo dira.

Baina ikuspegi guztiek ez dute hirugarren sektorearen garrantzia modu positiboan baloratzen. Hirugarren sektorea ez dute soilik informazio, ezagutza eta kualifikazio altuko lanbideek osatzen, egonkortasunik ez duten, gaizki ordainduak diren eta marginatuak dauden langileek betetzen dituzten lanbideak ere ugariak dira. Alde batetik enpresa industrial berrien periferian esku lan malgu bezela kontratatua izaten dira eta bestalde, zerbitzuetako lan ez kualifikatuetara baztertuak egoten dira.

Zaila da beraz, hirugarren sektorearen ikuspegi homogeen bat lortzea. Alderantziz, bai egitura profesionalaren eta bai egitura sozialaren ikuspegi polarizatu bat lortzen da. Eskala sozialeko zati mesprezatuena hirugarren sektore pobre honekin identifikatzen dira.

Hirugarren sektorearen aldeko joera honek eta lanpostu industrialen gutxitzeak ondorio larri bat dakar, profesionalki eta sozialki baztertuak diren kolektiboen sortzea. Birmoldatutako sektoreetako esku lan soberakinaren birkokapena zaila da, hauen adina eta kualifikazioa kontutan hartzen badugu.

2.- Populazio aktiboaren egitura eta osaketan ematen diren aldaketak.

70. hamarkadaren azken urteetan gazteek lan merkatuan sartzeko ziztuzten zailtasunak areagotu egin ziren. Lan faltak, lan merkatuan sartzeko lehenetsuna nork duen birdefinitzea bultzatu zuen.

Eskola garaia luzatzen zuten politiken bidez, gazteak biztanleria aktiboaren parte izatera gero eta beranduago sartzera lortu zen. Ondorioz, familia propio bat osatzeko aukerak ere gutxitu egin dira, eta gurasoen etxean pasatzen duten denboraldia luzatu egin da. Estadistikek gazteek iharduera ekonomikoan duten pisuaren gutxitzea baieztatzen dute.

Lanean hasteko adina atzeratuz eta prejubilazio politiken eraginez, bizitzan zehar lanean aritutako denboraren batabestekoa gutxitu egin da eta tarteko adinen pisua haunditu egin da, biztanleria aktiboa nortzuk osatzen dutenari buruzko imajina eta irizpidea aldatuz.

Beste aspektu garrantzitsu bat, gazteek nagusiekin alderatuz lanarekiko duten jarrera ezberdina da. Profesionalki krisialdian gizarteratuak, lan merkatuan nagusi den behin-behinekotasunera ohituago daudela dirudi.

Bestalde emakumeok iharduera ekonomikoan gero eta partehartze haundia daukagula, zalantzan jarri ezin daitekeen zerbait da. Baina partehartze hau nolako den galdetu beharra dago eta desberdintze eta baztertze joerarik ematen den ala ez. Enplegu bat aurkitzerako orduan emakumeok zailtasun eta arazo askorekin topo egiten dugu. Hauetako arazo batzuk:

1.- "prezentzia bikoitza" etxeko lanetan eta lan asalarizatuan.

2.- Bereizketa horizontala eta bertikala. Emakumeok erresponsabilitate eta autoritate gutxiko lanpostu gehiago betetzen ditugu eta orokorrean gizonezkoak izaten ditugu nagusi bezela. Bereizketa horizontalari dagokionez, argi gelditu da zenbait sektore edo adar, nagusiki emakumeontzako direla.

3.- Gainera aldi baterako enpleguetan ere gizonekin alderatuz nagusi agertzen gara eta ekonomia izkutuan ere nagusi gara.

Biztanleria aktiboari dagokionez, azkenik esan behar da, populazio aktiboaren heziketa maila ere, kontutan hartzeko moduan haunditu dela.

3.- *Merkatuaren egungo segmentazioa: behin-behineko enpleguen ugalketa garai fordistako enplegu egonkorrekin alderatuz.*

1984an Langileen Estatutuan arautu ondoren 1985tik aurrera behin-behineko kontratuak asko ugaltu dira. Esku lanaren malgutasuna errezteko instrumentu bezela eta enplegua sustatzeko neurri bezela erabili dira eta ondorioz, kontratazio moduak dibertsifikatu dira, hauen ezaugarri nagusia enplegu garaiaren muga tenporala delarik.

Gainera, behin-behinekotasun hau badirudi errepikatu egiten dela, zenbait langilentzat egoera-soziala ere bihurtzen delarik.

4.- *“Enplegu beteko” gizartearen krisia eta langabezia ugari eta iraunkor baten agerpenak baztertze profesional batera zuzentze gaitu.*

Gaur egungo langabezia ugaria eta estrukturala da; biztanleria aktiboaren zati handi bati eragiten dio eta ez dauka desagertzeko itxurarik. Batez ere gazteei, 45 urtetik gorakoei, emakumeoi eta heziketa maila bajeunak dituztenei eragiten die.

“**Lanaren Gizartea**” batzuek “**Langabezia osoaren gizartea**” deitzen dutenagatik, setiatua izaten ari da. Gure garaiko langabezia, ugaria, desberdina eta iraunkorra da eta langabetua ez da sozialki, sistema industrialagatik denboraldi baterako baztertutako langilea bezela definitzen, zeinen egoera diru-laguntzei eta kolokazio bulegoei esker hobetu daiteke.

Gaur egungo langabezia bere iraupenagatik eta errepikatzen delako bereizten da (behin-behineko kontratuen hedapenaren ondorioz enplegua-langabezia sekuentzia ematen da). Guzti honek berronesten du, langabeziak mendebaldeko gizarteetan daukan izakera estrukturala eta iraunkorra. 70.hamarkadatik gaur arte langabeziaren bata-besteko iraupena hasi besterik ez da egin. 1994. urtearen bukaran langabetuen %56,8ak urtebete baino gehiago zeraman egoera honetan Espainian.

Zenbat eta haundiagoa izan aurrez izandako kontratuen behin-behinekotasuna, iraupen luzeko langabezia egoera batetan erortzea errezagoa da. Errepikatzen den langabezia egoera, normalean langabezia egoeran eteten da.

Gaur egungo langabezia, baztertzen duen langabezia bat da eta **baztertze profesional eta baztertze sozialaren**ATEGITEA bultzatu du. Mota honetako langabeziak, zailtasunak pilatzen dituzten taldeei jotzen die gogorren: adin nagusia, kualifikazio maila txikia, langabeziaren iraupen luzea, diru laguntzen bukaera, eta talde hauek lan merkatuan sartzeko izaten dituzten aukerak oso txikia dira. Merkatuan gertatzen denaren antzera langabeziaren barne ere segmentazio bat ematen da, bere kideetako batzuk marginatuz eta baztertuz.

Jakitun gehienen ustez, dualizazio sozial prozesuetarantz zuzentzen ari gara eta gizarte bat duala dela esan dezakegu dualismoaren mugak onhartzeko dituen; integrazio eta ez integrazio guneak izendatzen dituen; ezegonkortasuna eta ahultasuna gauza onhartuak direnean.

Langabezia eta baztertzearen inguruko planteamendu politiko ezaren aurrean “langabetuen entretenimendurako” neurriek lehentasuna izan dute. (ahalik eta bake sozial haundiena mantendu ahalik eta diru gutxien gastatuz). Bizitzen ari garen modernizazio prozesu berriek, bere ahultasun ekonomikoagatik bereizten den tarte zabal bat sortzen ari dira. Gorzen hitzetan¹³ gizarte asalarizatutik baztertuek, gehi partzialki bakarrik barneratuek, frantziako populazio aktiboaren %30 osatzen dute eta populazio britaniar edo amerikarraren %40.

5.- Informalizazio ekonomiko prozesuen indartzea “izkutuko lana” eta enplegu irregularrak.

Lanaren krisiak zalantzan jarri ditu lanaren oinarriak integrazio sozialaren mekanismo bezela. **Gizarte postsalarial batetan sartzen ari ote gara?** Langabezia, baztertze profesional eta txirotasun berriari buruzko datuek badirudi zalantzan jartzen dutela enpleguaren mekanismoa gizartearen egiturazailer modura. Ekonomia monetariora eta erlazio sozial sistemarako sarrera enpleguak baldintzatzen badu, **zer gertatzen da bere faltak gero eta jende gehiagorengan eragina duenean?**

Mota honetako galderen erantzunek, esparru ekonomiko eta sozialaren artean dagoen adostasun krisiari irtenbide bat emateko burutu beharreko aldaketa zakonak azpimarratzen dituzte. **Ekonomiak, langabezia, baztertzea eta ezegonkortasunaren bidez, “Lanaren Gizartea” bereizten zuten arau berdinekin ezin duela funtzionatzen jarraitu, aditzera eman du.**

“Enplegu beteak”, modeluaren pilareak, soldatapeko enpleguaren bitartez bakarrik, batek bere pozizio eta partehartze soziala baieztatu dezakeela defendatzen

13. GORZ, A: op.cit, p. 95.

duen ideia finkatu du. Ideia honek gizartean partehartzeko beste modu batzuk suntsitu ditu. Gainera faltsukeria bat eusten du, hau da, edonor eta edozein momentutan integratu daitekela gizartean; eta argi dago hau oso denboraldi mugatuan bakarrik izan dela posible. Oraingo arazoa, logika salariala ordezkatu edo osatuko duten abestasanaren banaketa eta partehartze sozial mekanismoak zeintzuk diren aurkitzea da, baina gizakion artean ezberdintasun berriak sortu gabe.

Santosen ustez gainera, lanaren krisiak integrazio mekanismo moduan, beste dimentsio bat ere badauka: Industrializazio garaian, langileek “klase obrera” bezela ezagutzen dena eratu bazuten lanean, ofizioan edo lanbidean oinarritutako identitate sozial bat lortuz; enpresen premia berrien aurrean, gaur langileen identitate hauek ito egiten dira. Gaur egungo kontextuan identitateak lanetik kanpo eraikitzeko joera ematen da: kontsumoan edo denbora librean sortutako harremanetan. Gainera behin-behineko enpleguek ez dute lanarekiko identifikazioa bultzatzen; gaur sarrera profesionalak ez du gizarteratze osoa bermatzen.

3. Bibliografía

- CORIAT, B.: El taller y el robot, Siglo XXI, Madrid, 1993.
- FERNANDEZ ENGUITA, M.: La cara oculta de la escuela, Siglo XXI, Madrid, 1992.
- GORZ, A.: Metamorfosis del trabajo, Sistema, Madrid, 1995.
- MINGIONE, E.: Las sociedades fragmentadas, Mº Trabajo y Seguridad Social, Madrid, 1993.
- OFFE, C.: La sociedad del trabajo, Alianza Editorial, Madrid, 1992.
- PAHL, R.E.: Divisiones del trabajo, Mº Trabajo y Seguridad Social, Madrid, 1991.
- PRIETO, C.: Trabajadores y condiciones de trabajo, Ediciones HOAC, Madrid, 1994.
- SANTOS ORTEGA, J.A.: Sociología del trabajo, Tirant lo blanch, Valencia, 1995.
- TOURAINÉ, A.: Crítica de la Modernidad, Temas de Hoy, Madrid, 1993.
- WEBER, M.: La ética protestante y el espíritu del capitalismo. Península, Barcelona, 1969.